

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

AMURRIOKO ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Amurrioko Hauteskunde Batzordea eratzea 2015eko udal hauteskundeetarako eta Biltzar Nagusietarako hauteskundeetarako

Daniel Ruiz Martinezek, Arabako Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkariak, honako hau eman du:

EDIKTUA

Ekainaren 19ko 5/1985 Legeak, hauteskunde araubide orokorrarenak, 14.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, martxoaren 30eko 233/2015 Errege Dekretuaren bidez, udal hauteskundeetarako deialdia egin da, eta Diputatu Nagusiaren martxoaren 30eko 49/2015 Foru Dekretuaren bidez, berriz, Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundeetarako deialdia; bi horiek BOEn eta ALHAOn argitaratu dira, 2015eko martxoaren 31n. Guztiek jakin dezaten, honen bidez, aditzera ematen da gaur Arabako Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratu dela eta batzordeak hurrengo kide hauek dituela:

BATZORDEBURUA: Mónica Basurto Garrido andrea, Amurrioko 1. Auzialdiko eta 1 zenbakiko Instrukzioko ZULUPeko epailea eta barruti judizialeko epaitegi dekanoko epailea.

BATZORDEKIDE JUDIZIALAK: María José Calvo Calvo andrea, Amurrioko 1. Auzialdiko eta 2 zenbakiko Instrukzioko ZULUPeko epailea, eta María Jesus Mendía Gobantes andrea, Aiarako bake epailea

ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEKO IDAZKARIA: Daniel Ruiz Martínez jauna, Amurrioko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zenbakiko ZULUPeko idazkaria.

Amurrio, 2015eko apirilaren 3a

Eta horrela jasota gera dadin, eta ALHAOn argitara dezaten, honako hau egin eta izenpetzen dut, Amurrioren, 2015eko apirilaren 3an

IDAZKARIA